

# “Asko gozitzen dut gauzen logika ulertzen”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia ■ Argazkia: Ainhoa Iñiguez

**Ainhoa Iñiguez Goizueta**  
Matematikaria



## Ainhoa Iñiguez Goizueta

Donostia, 1985.

- **Matematikan** lizentziatu zen, EHU.
- 2010. urtean Oxfordeko Unibertsitatera jo zuen talde teoriar **tesia** egitera.
- **Arraunketako biomekanikan** lan egin du, nazioarteko talde eta prestatzaileekin.
- Espainiako Selektzioko Berrikuntza eta Teknologiako batzordekide da.

Ainhoa Iñiguez Goizuetak onartzen du Matematikak ospe txarra duela. Beretzat, ordea, erraza eta entretenigarria izan da beti: "Eskolan aspertzen nintzenean, adibidez, eragiketak egiten hasten nintzen. Asko gozatzen dut gauzen atzean dauden arrazoiak edo logika ulertzen".

Matematikaz gain, irakastea ere gogoko du. Horregatik, unibertsitateko ikasketak egiteko garaia iritsi zitzaionean, zalantza izan zuen: "Matematika eta irakaskuntza ez ezik, kirola ere gustatzen zait. Eta Euskal Filologia ikastea ere pasa zitzaidan burutik. Azkenean, Matematikaren alde egin nuen".

Hala, EHU-n hasi zen ikasten, baita emaitza bikainak lortu ere. Hala eta guztiz ere, lehen urtea amaitutakoan, utzi egin zuen: "Duda sortu zitzaidan: hau al da guztia? Zerbait aplikatua probatzea erabaki nuen, eta Arkitekturan sartu nintzen. Baina ez nuen ikasturte osoa iraun", gogoratu du.

Hurrengo ikasturtea hasteko geratzen ziren hilabeteetan Irlandara joan zen, eta, itzulitakoan, Madrilera: "Aeronautikako Fakultatera joan, eta Matematikako hirugarren mailako klasera sartu nintzen, entzutera. Orduan izan nuen konbentzimendu osoa Matematikako ikasketak amaitu nahi nituela". Aurrena, urtebete egin zuen Bartzelonako Unibertsitatean, eta gero EHUra itzuli zen, amaitzera. "Bosgarren urtean, benetan gozatu nuen gai batzuekin", aitortu du.

### Bere bidea egin nahian

Ez zitzaion hori gertatu, ordea, tesiarekin. "Bosgarren mailan, doktoretza-ikasle batek aipatu zidan Oxforden izan zela egonaldi bat egiten, eta pentsatu

nuen ideia ona izan zitekeela han tesia egitea. Baina ez da batere erraza izan: aukeratutako problema uste baino konplexuagoa gertatu da eta, tesi-zuzendariaren gidaritza edo laguntzaren faltan, beste kolaborazio batzuk bilatu behar izan ditut...".

Dena den, tesiarekin ari zela ere, topatu zuen bere bidea egiteko modua. "Han arraunak indar handia du, eta, ni ere arraunean ibilia nintzenez, saiatu nintzen loturak bilatzen. Ahalegin eta mezu askoren ondoren, Zeelanda Berriko estatistikari baten erantzuna jaso nuen. Han aritu nintzen 23 urtez azpiko arraun-taldekoekin lanean, azterketa biomekanikoak egiten eta haiekin batera ikasten."

Horrek ateak zabaldu zizkion arraunketako Biomekanikan mundu-mailan lider den enpresan lan egiteko, Cambridgen; eta, horrela, iaztik Espainiako Arraunketako Federazioaren Berrikuntza eta Teknologia batzordearen kide ere bada. Azaldu duenez, "horrela lortu nuen zubia egitea tesia eta kirolaren artean".

Tesia amaitutakoan, ordezkapen bat egin zuen Bilboko Ingeniaritza Eskolan, eta iaz Mondragon Unibertsitatean aritu zen. Alabaina, bere aurreikuspenak ez ziren ase, eta ez jarraitzea erabaki zuen.

Aurtengo ikasturtean Bilboko Ingenieritza fakultatean ariko da irakasle lanetan, eta, bestetik, ikerketalerro berrietan barneratzen ari da, DIPC-ko fisikari baten eskutik. "Gogoz nengoen gai berriren batean lanean hasteko, eta aukera berriaz disfrutatzen ari naiz. Dena den irakaskuntzan disfrutatzen dut gehien, eta bien arteko oreka egokia topatzea dut helburu aurtengoan". ●



Elkarrizketa osoa  
webgunean



Kultura  
Zientifikoko Katedra  
Cátedra  
Cultura Científica

UPV/EHU Kultura  
Zientifikoko Katedrarekin  
lankidetzan egindako atala.